



aztiker
SOZIOLOGIA IKERGUNEA

JATORRI ANIZTASUNA ZENBAKITAN. USURBIL, 2020

<http://udal.aztiker.eus/usurbil>



Usurbilgo Udala

AURKIBIDEA

USURBIL, 2020	2
AZKEN URTEETAKO BILAKAERA (2002-2019)	7
2019 URTEKO ALTAK.....	8
2019 URTEKO BAJAK.....	11
2019 URTEKO ALTEN ETA BAJEN MIGRAZIO SALDOA.....	13

USURBIL, 2020

Beheko taulak agertzen duen moduan, 2020an Usurbilek 6.200 biztanle ditu; hauetatik 5.123 Euskal Herrian jaiotakoak dira, eta horietatik 4.954 Gipuzkoan. Usurbilen bertan sortuak, berriz, 2.636 herritar dira, herritarren %42,5. Osotara Euskal Herrian jaiotako usurbildarrak herritarren hamarretik zortzi baino gehiago dira (%82,6).

Bestetik, Euskal Herritik kanpo sorturikoak osotara %17,4 dira; horietatik %12,1 europarrak; eta gehienak Espainiako Estatutik etorritakoak (%10,5). Amerikatik datozenak, aldiz, %3,8 dira; gehienak Hego Amerikatik (%2,1) eta Ertamerikatik (%1,3) iritsitakoak. Afrikari erreparatuz, Usurbilen 2020an bizi diren herritarren %1,0 afrikarrak direla ikus daiteke. Asiatik etorritakoak, berriz, usurbildarren %0,3 dira; eta Ozeanatik iritsitako herritarrik ez dago.

Euskal Herritik kanpo jaiotako usurbildarrak 1.077 herritar dira, esan bezala populazioaren ia hamarretik bi (%17,4). Multzo horren barruan agertzen diren estatu nagusiak Espainiako Estatua (652 herritar), Nikaragua (54), Errumania (42), Ekuador (31), Kolonbia (28), Maroko (26) eta Honduras dira (25).

1.1 Taula: jatorri guztiak, Usurbil, 2020

Lurraldea	Guztira	%
Herritarrak Guztira	6.200	100,0
Euskal Herria Guztira	5.123	82,6
Gipuzkoa Guztira	4.954	79,9
Udalerrian jaiotak	2.636	42,5
Gipuzkoako gainerako udalerriak	2.318	37,3
Araba	13	0,2
Bizkaia	70	1,1
Nafarroa	84	1,3
Lapurdi, Baxenafarroa eta Zuberoa	2	0,0
Europa Guztira	755	12,1
EB28 Guztira	741	11,9
Alemania	2	0,0
Bulgaria	5	0,0
Erresuma Batua	4	0,0
Errumania	42	0,6
Espainiako Estatua Guztira	652	10,5
Salamanca	78	1,2
Caceres	118	1,9
Burgos	37	0,6
Madril	26	0,4
Errioxa	7	0,1
Valladolid	12	0,1
Palencia	41	0,6
A Coruña	10	0,1
Pontevedra	12	0,1
Badajoz	67	1,0
Gainerako Espainiako Estatua	244	3,9
Frantziako Estatua	10	0,1
Italia	0	0,0


Portugal	21	0,3
Polonia	1	0,0
Gainerako EB28	4	0,0
Europa ez komunitarioa Guztira	14	0,2
Ukraina	10	0,1
Errusia	1	0,0
Gainerako Europa ez komunitarioa	3	0,0
Amerika Guztira	237	3,8
Ipar Amerika Guztira	2	0,0
Estatu Batuak	2	0,0
Gainerako Ipar Amerika	0	0,0
Ertamerika Guztira	83	1,3
Honduras	25	0,4
Mexiko	4	0,0
Nikaragua	54	0,8
Gainerako Ertamerika	0	0,0
Antilak Guztira	18	0,2
Dominikar Errepublika	5	0,0
Kuba	13	0,2
Gainerako Antilak	0	0,0
Hego Amerika Guztira	134	2,1
Argentina	21	0,3
Bolivia	2	0,0
Brasil	11	0,1
Ekuador	31	0,5
Kolonbia	28	0,4
Paraguay	8	0,1
Peru	11	0,1
Txile	8	0,1
Uruguay	2	0,0
Venezuela	12	0,1
Gainerako Hego Amerika	0	0,0
Afrika Guztira	63	1,0
Ipar Afrika Guztira	30	0,4
Argelia	4	0,0
Maroko	26	0,4
Gainerako Ipar Afrika	0	0,0
Saharaz hegoaldea Guztira	33	0,5
Nigeria	11	0,1
Senegal	2	0,0
Gainerako Saharaz Hegoaldea	20	0,3
Asia Guztira	22	0,3
Txina	5	0,0
Mongolia	1	0,0
Pakistan	8	0,1
Gainerako Asia	8	0,1
Ozeania Guztira	0	0,0

Hurrengo grafikoak irudikatzen duenaren arabera, herrian bertan jaio direnen artean gizonak gehixeago dira (%52,1) emakumeak baino (%47,9). Usurbilen bertan jaiotakoan artean genero banaketa oso parekoa dela esan daiteke. Honen bide beretik doa Gipuzkoako gainerako herrietan jaio diren biztanleen sexu banaketa; izan ere, gizonak %50,1 eta emakumeak %49,9 dira. Hala ere, Gipuzkoakoak ez diren Euskal Herriko gainerako herrialdeetan jaiotako usurbildarren artean, generoaren araberrako banaketa modu nabarmenagoan desorekatzen da; emakumeak %56,8 baitira; eta gizonak, berriz, %43,2.

Euskal Herritik kanpo jaio diren usurbildarrei dagokienez, kontinentearen arabera aldaketak somatzen dira. Hala, Europatik zein Asiatik etorritako jendearen artean generoaren arabera aldea murrizta da. Europaren kasuan, emakume eta gizonen arteko aldea 6 puntukoa da; emakumeak %53,0 izanik, eta gizonak %47,0. Bestetik, asiarren kasuan, bi generoen arteko aldea 9 puntukoa da, kasu honetan gizonezkoen alde.

Aitzitik, Amerika nahiz Afrikaren kasuetan generoen arteko aldea nabarmenki desorekatzen da. Amerikari dagokionez, emakumeak %60,3 dira, eta gizonak %39,7 besterik ez. Ondorioz, bien arteko aldea 20,5 puntukoa da. Ostera, Afrikari erreparaturaz, 14,2 puntuko aldea ikusten dugu, baina Amerikan ez bezala, oraingoan, gizonen aldekoa da. Herritar guztiak kontutan hartuta, orotara, Usurbilgo biztanleria generoaren arabera oso parekatua dela beha daiteke. Grafikoak azaltzen duenez, usurbildarren %50,1 gizonezkoak dira eta %49,9 emakumezkoak.


1.2 Grafikoa: jatorri guztiak sexuaren arabera



Hurrengo grafikoak adierazten duenez, jaiolekuaren arabera, biztanleen batz besteko adina aldatzen da. Hala izanik, europarrak populazio zaharkituena direla ikus daiteke modu argian (61,4 urte batez beste). Kontuan hartu beharrekoa da, Europatik etorritako usurbildar gehienak Espainiako Estatutik datozela; eta beraz, XX.mendeko bigarren erdian gertatutako migrazio-fluxuei dagozkien biztanleak dira. Bestetik, Gipuzkoako herriren batean jaio diren Usurbilgo biztanleen batz besteko adina 48,3 urtekoa da. Ildo beretik, are zaharkituagoa da Euskal Herriko gainerako herrialdeetan jaiotakoena adina, 56,5 urtekoa izanik.


Amerikatik, Afrikatik eta Asiatik etorritako biztanleen batz besteko adina media baino gazteagoa da (37, 35 eta 30 urtekoa hurrenez hurren). Herritar hauek egiten dute posible Usurbilgo herritarren batez besteko adina 44 urtetik beherakoa izatea.

1.3 Grafikoa: jatorri guztiak batuz besteko adinaren arabera



Usurbil bere ingurunearekin, Buruntzaldea eta Gipuzkoarekin, konparatuz gero, jatorri aniztasunean desberdintasunak daudela ikusten da. EAEn jaiotakoak %81,3 dira Usurbilen, %73,0 Buruntzaldean eta %74,5 Gipuzkoan. EAetik kanpo jaiotakoaren artean ere banaketa ezberdina da Usurbil eta ingurunea alderatuta. Buruntzaldea barruan, Astigarragarekin batera, Usurbil da EAetik kanpoko gutxien jaso dituen udalerrria. Andoainen eta, bereziki, Lasarte-Orian Espainiako Estatuan jaiotakoak Usurbilen baino ehuneko handiagoa osatzen dute. Beraz, Buruntzaldeako udalerriekin eta Gipuzkoarekin alderatuta, Usurbilek migrazio gutxiago jaso duela esan daiteke.

1.4 Grafikoa: jatorri guztiak Usurbilen, Buruntzaldean eta Gipuzkoan



Ondorengo taulan erakusten dira usurbildarren artean Euskal Herriko zein udalerritan jaiotako jendea dagoen gehien bat (Usurbil bera kenduta). Donostian sortutako 1.521 pertsona Usurbilen bizi dira, seguruenik asko jaiotzetik usurbildarrak direnak baina Donostiako Ospitalean jaiotak. Bigarren kopurutsuena Aia da, 77 aiar Usurbilen bizi direlarik. Hurrengoak, Orio 64 pertsonekin, Lasarte-Oria 57 pertsonekin eta Tolosa 54 pertsonekin kokatzen dira.

1.6 Taula: Euskal Herriko 20 udalerrien rankina


[Rankin]	Guztira
Donostia (Gipuzkoa)	1.521
Aia (Gipuzkoa)	77
Orio (Gipuzkoa)	64
Lasarte-Oria (Gipuzkoa)	57
Tolosa (Gipuzkoa)	54
Hernani (Gipuzkoa)	53
Zarautz (Gipuzkoa)	49
Bilbao (Bizkaia)	28
Iruñea (Nafarroa)	25
Andoain (Gipuzkoa)	24
Irun (Gipuzkoa)	22
Pasaia (Gipuzkoa)	22
Errenteria (Gipuzkoa)	21
Zizurkil (Gipuzkoa)	21
Zestoa (Gipuzkoa)	19
Eibar (Gipuzkoa)	15
Barakaldo (Bizkaia)	14
Deba (Gipuzkoa)	14
Getaria (Gipuzkoa)	14
Urnieta (Gipuzkoa)	14

AZKEN URTEETAKO BILAKAERA (2002-2019)

Grafikoan agertzen denez, udalerrian bertan sortuak diren usurbildarren ehunekoa %43aren bueltan egon da azken bi hamarkadetan; 2002an %43,0 izanik, eta 2019an %42,8. Bestetik, Gipuzkoako beste udalerriren batean jaio direnen ehunekoa ere oso antzeko mantendu da 2002tik (%37,3tik %37,2ra pasa da). Nafarroa Garaitik zein Espainiako Estatutik datozen biztanleen kopurua nabarmenki jaitsi da, 2002an %15,0 izanik, eta 2019an %12,1 besterik ez. Azkenik, Marokon, Nikaraguan edota Errumanian sortutako biztanleak igo egin dira azken bi hamarkadetan. Ekuadortarren edota kolonbiarren kasuan, ostera, 2012an izan zuten momentu kopurutsuena eta gaur egun estatu nagusietako bat izaten jarraitzen badu ere, kopurua jaitsi egin da.

Joera orokorra da 50 eta 70.hamarkadetan eman zen migrazio-fluxuarekin iritsitako herritarrak, Espainiako Estatuan jaiotakoak batez ere, beren pisu demografikoa galtzen ari direla udalerrian. Espainiako Estatutik iritsitako herritarren ondorengoak bertan Euskal Herrian bertan jaiotakoak dira. Aldiz, Estatutik kanpoko herritarren etorrera izan da ondorengo migrazio-fluxua, XXI.mendekoa. Hauek 2002an usurbildarren %1,4a osatzen zuten eta gaur egun populazioaren %6,4a dira.

2.1 Grafikoa: Jaiolekuen bilakaera Estatu nagusien arabera



2019 URTEKO ALTAK

2019an Usurbilen alta eman zuten herritarrak 249 izan ziren eta horietatik 132 Euskal Herrian sortutakoak ziren, %53,0 alegia. Hauen artean, gehienak Gipuzkoako beste udalerriren batean jaiotakoak dira (107). Izan ere, Usurbilen bertan jaiotakoak, soilik 14 dira eta Euskal Herriko gainerako lurraldeetan jaio direnak (11).

Europatik etorritako herritarrak 34 izan ziren (%13,7). Horietatik 21 Espainiako Estatuan jaiotakoak ziren, Ukrainakoak 6, Errumanian jaiotakoak 3 eta Europako gainerako Estatuetan sortutakoak 4. Amerikarrei dagokienez, 2019an 62 herritarrek eman zuten alta Usurbilen (%24,8), guztizkoaren %6,0 Nikaraguakoak izanik, eta %4,4 Kolonbiakoak. Bestetik, Afrikatik 12 pertsona etorri ziren, horietatik erdiak Marokotik zehazki. Azkenik, Asiatik etorritakoak, %3,6 besterik ez ziren izan eta Ozeanitik inor ez zen iritsi.

3.1 Taula: jatorria kontinenteen eta Estatu nagusien arabera, Usurbil, 2019


Kontinenteak eta Estatu nagusiak	Guztira	%
Herritarrak Guztira	249	100,0
Euskal Herria Guztira	132	53,0
Herrian bertan	14	5,6
Gipuzkoako gainerako herriak	107	42,9
Euskal Herriko gainerako herrialdeak	11	4,4
Europa Guztira	34	13,7
Espainiako Estatuak	21	8,4
Errumania	3	1,2
Ukraina	6	2,4
Europako gainerako estatuak	4	1,7
Amerika Guztira	62	24,8
Nikaragua	15	6,0
Ekvador	4	1,6
Kolonia	11	4,4
Honduras	6	2,4
Afrika Guztira	12	4,8
Maroko	6	2,4
Asia Guztira	9	3,6
Ozeania Guztira	0	0,0

2019ko altak generoaren arabera aztertuta, udalerrian bertan jaiotakoak ez dira generoaren arabera desorekatzen. Bai Gipuzkoako gainerako udalerrietan baita Euskal Herriko gainerako lurraldeetan jaio direnen artean, generoaren araberako aldea 10 puntu ingurukoa da. Hala ere, Gipuzkoaren kasuan desoreka hori gizonezkoen aldekoa den bitartean, Euskal Herrikoen kasuan, emakumeen aldekoa da. Aurrekoekin bat, hau da, emakumezkoen aldeko desorekarekin bat agertzen dira Espainiako Estatutik, Nikaragutik, Ekuadortik, Kolonbiatik zein Hondurasetik iritsitako herritarrak. Errumaniarren eta marokoarren kasuan, aldiz, gizonezkoak dira gehiengoak.

Nahiz eta kopuruak ez izan oso esanguratsuak jatorrika, argi nabarmentzen da jatorri bakoitzetik iritsitako herritarrek desoreka handiak dituztela generoari dagokionean. Joera hau oso erlazionatuta dago pertsona hauek lan merkatuan izan ohi dituzten aukerekin.


Hau ikusita, orokorrean Usurbilgo udalerrira 2019an iritsi direnen artean, genero aldetik oso alde txikia dagoela ikus daiteke. Izan ere, oro har hartuta, emakumezkoak %50,2 diren artean, gizonezkoak %49,8 dira.

3.2 Grafikoa: Altak Estatu nagusien eta generoaren arabera



2019an Usurbilen alta eman duten biztanleen jaiolekua eta horren araberako batz besteko adina adierazten du hurrengo grafikoak. Ikus daitekeenez, udalerrian bertan sortu direnen eta Usurbilen alta eman dutenen batz besteko adina ia 35 urtetan dago (jaiotzak ez dira kontutan hartzen atal honetan). Oro har, adin-tarte guztiak 30 eta 40 urte artean kokatzen dira; Errumania, Maroko eta Nikaragua jaioleku gisa izan dutenak gazteenak dira, batz beste 24, 29 eta 29 urte dituztelarik; aldiz, Ekuadorretik datozenak dira nagusienak 45 urteko batz bestekoarekin.

Batez beste 2019an zehar Usurbilen alta eman duten 249 lagunen adina 35,4 urtekoa da. Hau da, udalerriko batez besteko orokorra baino 8 urte gazteagoa (43,9 urte) eta 2019an udalerritik joan diren herritarrak baino urtebete zaharragoa (34,7 urte).

3.3 Grafikoa: altak Estatu nagusien eta batz besteko adinaren arabera

2019 URTEKO BAJAK

2019. urtean 241 herritarrek Usurbil utzi eta beste udalerrri batera joan ziren; horietatik 133 Euskal Herrian jaiotakoak ziren; hau da, guztizkoaren %55,1. Euskal herritar horien artean, gehiengoak Gipuzkoako beste herriren batean sortutakoa zen (85). Hala ere, Usurbilgo udalerrian jaiotakoak (%15,7) eta Euskal Herriko gainerako lurraldeetan jaiotakoak (%4,1) ere baziren. Horretaz gain, Europako Estatu ezberdinetatik etorritako jendeak ere Usurbil utzi zuen; orotara 40 lagunek; gehienak Espainiar Estatuan jaiotakoak (18) edo errumaniarrak (8).

Bestetik, Amerikatik heldutako hainbat biztanle ere udalerritik joan ziren; orotara 49 lagun (%20,3); Nikaraguan, Hondurasen, Kolonian eta Ekuadorren sorturikoak, batik bat. Modu berean, Afrikako 11 pertsona 2019an Usurbildik joan ziren; horietatik 3 marokoarrak eta beste 3 nigeriarrak. Azkenik, Asiatik heldutako biztanleak, alde egindako guztietatik, %3,3 besterik ez ziren izan.


4.1 Taulak: bajak Kontinenteen eta Estatu nagusien arabera

Kontinenteak eta Estatu nagusiak	Guztira	%
Herritarrak Guztira	241	100,0
Euskal Herria Guztira	133	55,1
Herrian bertan	38	15,7
Gipuzkoako gainerako herriak	85	35,2
Euskal Herriko gainerako herrialdeak	10	4,1
Europa Guztira	40	16,6
Espainiako Estatua	18	7,5
Errumania	8	3,3
Europako gainerako estatuak	14	5,8
Amerika Guztira	49	20,3
Nikaragua	24	10,0
Ekuador	3	1,2
Kolonia	5	2,1
Honduras	4	1,7
Afrika Guztira	11	4,6
Maroko	3	1,2
Asia Guztira	8	3,3
Ozeania Guztira	0	0,0

2019an Usurbilgo bajak generoaren arabera eta Estatu nagusien arabera agertzen dira beheko taulan. Udalerrian bertan jaiotakoen artean, Usurbil utzi duten emakumeak gizonezkoak baino gehiago direla ikus daiteke (%60,5 eta %39,5). Euskal Herriko gainerako herrialdeetan jaiotakoen artean joera berdina antzeman daiteke. Aldiz, Gipuzkoako gainerako udalerrietan jaiotakoen artean gizonezkoak gehiago dira emakumezkoak baino.


Euskal Herritik kanpok, estatu nagusika begiratuta, Espainiako Estatuko biztanleen artean egoera parekatua dela azter daiteke. Bestetik, Nikaragua, Errumania, Ekuador edota Hondurasen jaiotakoen artean emakumezkoak dira gehiengoan udalerria utzi dutenetatik. Kontrakoa gertatzen da Kolonian eta Marokon jaiotakoen artean.

4.2 Grafikoa: Bajak Estatu nagusien eta generoaren arabera



2019ko bajen deskripzioarekin amaitzeko, batez besteko adina aztertu da. Usurbil utzi dutenen artean, udalerrian jaiotakoek batz besteko adina 30,3 urtekoa zutela ikus daiteke. Oro har, udalerria utzi dutenen batz besteko adina 25 eta 40 urte artekoa da, estatu nagusien arabera begiratzen badugu. Nikaragua edota Honduras jaioleku gisa dutenak dira gazteenak, 26 eta 28 urteko batz bestekoarekin; eta helduenak, berriz, Ekuadorren edota Espainiako Estatuan sorturikoak, 48 eta 43 urteko batz bestekoarekin. Usurbil utzi duten herritar guztiak kontutan hartuta, adinaren batz bestekoa 35,6 urtekoa da.

4.3 Grafikoa: bajak Estatu nagusien eta batz besteko adinaren arabera



2019 URTEKO ALTEN ETA BAJEN MIGRAZIO SALDOA

Amaitzeko, Usurbilgo udalerrian 2019an izandako migrazio saldoa irudikatzen da azken grafiko honetan. Ikus daitekeenez, saldoa positiboa izan da, hau da, 8 pertsona gehiago iritsi ziren Usurbilera, udalerritik joan zirenak baino.

Udalerrian bertan jaiotakoen artean, -24 pertsonako saldo negatiboa izan zen 2019an. Aldiz, Gipuzkoako gainerako udalerrietako 22 herritar gehiago zenbatu ziren. Bestetik, saldoa kontinenteka aztertuta, ia denek izan zuten saldo positiboa, European jaiotakoek izan ezin (6 herritar gutxiago, batez ere errumaniarrak). Amerikan jaiotako usurbildarren kopurua izan da azken urtebetean gehien hazi dena, 13 gehiago zenbatuz. Amerikarren barruan, ertamerikarrak 9 herritar gutxiago diren bitartean (Nikaraguan jaioak batez ere) hegoamerikarrak 25 gehiago dira orain. Bukatzeko, afrikarren eta asiarren saldoa +1ekoa izan da.

5.1 Grafikoa: Usurbilgo 2019ko migrazio saldoa kontinenteen arabera

